



## Ikastola Lizarra'ko jaietan

Lizarra'ko jaiak guztiz ederrak dire. Dagonillaren aurreko astean ospatzen dituzte. Lagunarteko aste aundi bat da. Erriak biotz bat egiten du. Margo ederreko jantziak denak txuri-gorritz jazen dituzte, baita jaietarako egitarau egokia argitaratzen. Zoratzeko aña gauzek agertzen dire orrialde oietan.

Iru gertakizun nagusi ikustera joan nintzen, iriaren ezaugarri bezala: Puy'ko jetxialdia, «Larrain dantza» erri osoak egiten duna ta San Pedro'tik aterata karriketan dabilkiten eliz-ibillaldia. Jaien berexitasunetaz oartu nintzen, baita ere ikastolak zenbateraino bat egiten duen erriarekin; eritit sortua, erriarekin bizi da.

Izen aundiko ikastola du Lizarra'k; iri erdian dago ageri eta ba dauka zuzendari guztiz argia, Napparra, Erronkaritarra, ezitzaile aurrelaria ta euskalzale benetakoa. Izena Koldo Viñuales Gale du. Ikasketen garaian seireun eta ogeitamar ikasle datozkie, iriko iru aurretatik bat. Xetasun oiek aunitz erran nai dute.

Naiz ikasleak oporretan izan, ikastola agiri zegoen lriko jai nagusietan.

Goizero, ikastolaren izenean, Santiago'ko enparantzan, etxola antzeko saltokia altxatzen dute, baita salda ematen utsean. Ikastolako aurren gurasoak, salda egin ondodit, banatzen asten dire. Goizarrak aunitz biltzen zaizkie salda artzera. Antxe dago euskal kutsua ta anaitasuna. Salda artu

nai dunak goiz joan bearra dauka. Azkar amaitzen da. Billa dabilenak, antxe arkitzen du euskaraz mintzatzeko aukera.

Ba dago ere Igandean, Meza ondodit elizibillaldi ederra, korapiloric gabekoa. Erriko jaialdiak, lriko zaindari nagusiak ospatzeko egiten dituzte; Jainkoa goreski ta zaindariak eskertu. Puy'ko Andra Maria ta San Andres dituzte lriko zaindariak. Andra Maria'ren irudia ta San Andres'en kutunak bizkar gainean daramazkite. Jai kutsua ta giroa aizatzen alegintzen dire.

Erri osoak laguntzen die bidean lriko GOI-zaindareiei; aurretik erraldoiak, buruaundiak, eresitalde guztiak banaka, baita tronpetandi, dantzari taldeak, gero gurutzeak eliz bakoitzako ederrenak, atzetik Andra Mari'ren irudia, ondodit San Andres'en kutunak, gero apaizak gainjantziekin, baita Udaltxeko mazukariak eta erri agintariak. Zaindarien ondodit gizon emakume erruz. Turuten deia, dantzarien jauziak, eresitaldeen doñua, indarrezko margoa, jaiaren alaitasuna, ziñezko giroa; konplejorik gabeko prozesioa. Ortzen erdian zeuden ikastolako dantzariak, ikurriñarekin batean, «Larrain dantza» delakoaren jauziak ematen zituzten, baita arpegi atsegiña erakusten. Antxen zeuden erriaren erdian, bat egiten, bear zen tokian, egun berexian.

Lizarra'ko ikastolak ba dauka izarra. Buruarekin alegindu ezkeru urruti joan ditezke. Bai eredu ederra...

Latxaga

## Patxi adiskideari erantzunez

Adiskide aundia dut Patxi, bi Basaburu'etako mendietan amaika lan egindako basa-gizon zintzoa. Donosti'ko Atotxa auzoan bizi da orain, zarturik, bere alaba gaztenaren etxean. Eta orra non izen nuen Larunbat Santuz berarekin kalean topo egiteko zori atsegiña. Alkarrizketa luzeak egiten ditu nerekin Patxi'k alkar aurkitzen dugunean, munduaren ibilleraz asko kezkatzen den gizona bait da. Eta luze mintzatu giñan oraingoan ere an inguruko «bar» batean «gosemixeri» apur bat jan eta ardo txuri baso pare bat edan ondorean.

- Aizu, Don Bixente: Zer ari zai-gu mundu ontan gertatzen? Gañean dugu, seguro, Azken Juizioa!


- Ez, Patxi. Oso urruti aurkitzen da oraindik Azken Juizioa, luzaro bizi bear bait du oraindik gure mundu onek.

- Ez, ez, ez, Don Bixente. Mundu au azkenekotan dago inpernu-ko pipiak jota. Ez duzu ikusten gizadi guzia ustelkeri utsa bihurturik? Zer ari Espaiñ'n bertan gertatzen? Bankuetako jaun aundi aberatsak, lapurrak; poliziak, lerdez eta zikinkeriz beterik atzerrira igesi; agintariek gezurrontzi bihurturik eta politikako jaun aundi oiek...

- Sooo! Patxi. Orrelako gauzak beti gertatu dira, Espaiñ'n eta Kotxintxina'n; mundu guztian.

- Aizu, Kontxentxirena delako ori, non dago?

- Ortze, Frantzi pasata joan da joan da joan, antxe, urruti xamar...



baña ez dio ajolik. Ez dio ajolik orrek. Auxe da egiaz ajola diona: nazkagarrikeri oiek denak baztar guztietan gertatzen dirala, eta naitanaiez gertatu bear dutela. Entzun eidazu pazientziz, Patxi:

Biziduna dan gorputz orok sortzen du zikinkeria. Zenbat eta bikaintasun aundiagokoa izadiaren mailan gorputza, orduan da zikinkeriz beterik atzerrira igesi; agintariek gezurrontzi bihurturik eta politikako jaun aundi oiek...

Eta gu gorputz izateaz gañera, Anima ere bagera-ta, gure animak ere sortzen du zikinkeria: Pekatua esan oi zaion zikinkeria.

Eta pekatua beti, guretzat eta mundu guztientzat, ondamenen eta oñazeen iturri delako, askoz

okerragoa da animak sortzen duen zikinkeria.

Gizartea ere, gorputz bat da, eta beste gorputzek bezala, zikinkeria sortzen du. Aipatu duzun, makurkeri-ta-gaiztakeri-mordo ori gizartek sortzen duen kaka besterik ez da. Gorputz orok sortzen du kaka! Eta gizartea animarik gabeko abereek ez baña, animaduten abereek osatzen dutelako, gizarteak sortzean duen kaka beste izaki guztiek sortzen dutena beñio gaiztoagoa da. Pekatua bait da! Eta, gizarteko gaitz guztien sort-iturria berriz pekatua bait da!

- Ikust'et, Don Bixente. Ederki ikust'et. Jatorrizko pekatua dabil guzti orren azpitik!!

- Ori duk Patxi. Orixel. Baña gure gorputz osoa kaka ez den bezala, gizartea ere ez da guztia pekatu ta gaiztakeri. Agintari ta polizi ta politikaririk geienak, zintzoak dira. Oso-oso zintzoak batzuk. Ni, Patxi, poztu egin nitzen gaiztakeri oien berri jakitean. Ez, gertatu direlako, gertatu direla jai-kin dugulako baizik. Len ere pilloka gertatzen zire orrela gauzak. Isilik gelditzen ziran! Orain, azaldu egin dire!

Ori da Demokaziaren emaitzarik onena: azaldu egiten dela txarria. Eta, gero, epaitu. Geldi bitez agertzen ari zaizkigun txarkeri oiek epailleen eskuetan eta bijoaz auek aurrera, gaiztakeri danen zain guztiak argira atera arte.

Latiegi'tar Bixente

## Albiste laburrak

Irurtzun-Andoain lotuko dituan autobia, lorailaren 5'ean irikiko da; datorren ostiralean. Egun go-goangarria danontzat!

Auñamendi edo Pirine-ingurua bizi-arazteko, Euskadi, Napparroa, Aragoi eta Kataluña'k sortu duten Batzorde bateratzalleak, datozten amar edo ogei urteetarako asmo aundiak ditu; oyetako bat, 30'tik 40 kilometro luze izango dituan lur-azpiko zubi edo tunel bat egitea; ori, 2010 edo 2015 urterako izango litzake.

Europa'ko lurraldeetako ordezkariak noizean bein izan oi dituzten billeretako batera, Napparroa'ko lendakari-ordeko dan Sanz jauna joan da eta bide batez, Itoiz'ko zingiraren alde gogotsu lan egin du: itxaropentsu etorria da.

BBV'k bi urtetik bein egin oi duan azterketa batek adierazten duanez, bakoitzak irabazten duan batzbesteko kopuruan, Baleares, Kataluña eta Madrid'en atzetik eta beste lurralde guztietakoan aurretik, Napparroa laugarren aurkitzen da, urtean 1.233.498 peza irabaziaz.

Argentina'n bizi den Teofilo Senosiain Eguaras, iruñar marista, lurraldean zear eziketa alorrean egin dituan lan arrigariengatik, «Jainkotiar Irakasle Domiña»ren jabe egin da.

Datorren ikasturterako, Napparroa'ko Erri-Ikastetxe Nagusiak, 2.515 ikasleentzat lekua gertu dauka.

Urteroko oiturari jarraituaz, Aralar'ko Goiaingerua Iruña'ra, joan dan astelenean iritxi zan eta geyentan bezela, euripean.

EL Perdon mendian eraikiak diran sei aize-errotek, aurten lau illabete-tan, 30 milloi pezten argi-indarra baño eyago sortu dute. Bardenetako La Negra inguruan, beste 88 aize-errotta jartzeko eskabidea egin dute, 139 milloi kilowatio sortzeko.

Aurten Napparroa'n, iñoiz baño amiamoko edo zikoña geyago dau-de: guztira, 95 bikote, igaz baño 21 geyago. Muskaria'n, Tudela'n, 22 bikote; San Adrian'en 8 eta Kaskan-

te'n 6.

Joan dan igandean Muskaria'n «Dantzari eguna» ospatu zan eta bertan, Napparroa'ko 24 dantzari taldeetako 750 dantzari bildu. Egun zoragarria gertatu zan.

Lumbier'ko pelota-lekuan eta jende askoren aurrean, bertako irugarren «Ardien ille-mozte txapelketa» ospatu zan: 18 partaide eta oye-taik bi, gipuzkoarrak. Lenengo irurak, bertakoak gertatu ziran: Valentin Eslava, Martin Juambeltz eta Fernando Eslava, irurak oso tarte tikiarekin; laugarrena, Valladolid'ko Melquiades Hidalgo.

Egun oyetan izan ditugun jela-teak, Napparroa'ko nekazaritzan 800 milloi peztatik gorako kalteak sortu ditu, batez ere mastietan. Legortea naikoa etzala, orain jelatea.

Gaur zortzi eta Gasteiz'ko Ogeta pelota-lekuan, eskuz-eskuko pelota txapelketako azken-aurreko jokaldian, Beloki'k Arretxe, erreze menderatu zuan: 22 ta 12. Beloki'k, ikusle guztiak arrituta utzi zituan, bere juagatik eta aidez, palarekin joko balu bezelaxe jo zualako. Gaur, Donostia'ko Anoeta pelota-lekuan, Errandonea ta Galarza III aurrez-aurre.

Osasuna'k ez du bururik jasotzen: etxean-eta Toledo'rekin biña berdindu zuan joan dan igandean.

Valladolid'en berrito ospatu dan Espaiña'ko judo-txapelketan, 48 kiloz bekoen artean txapeldun, Nerea Ruiz Sanchez-Valverde gertatu da. 18 urte ditu eta dagonerako domiña pilloaren jabe da. Lau urterekin asi zan judo ikasketan. Zorionak!

Berri-emalle

### Berri ona

## Lagunekin topo

«Zatozte eta jan» (Jn. 21, 1-19)

LAGUNAK ditugunak non ibilli oi diren badakigu. Egunero ikusten eta agurtzen ditugun lagunak eta adiskideak erraz aurkitzen ditugu. Bakoitzak baditu txoko atsegiñak, toki maitagarriak. Leenxeago edo geroxeago, buelta emanda toki eder eta maitagarri oietara jotzen dugu.

Apostoluak ere maite zuten Galilea-ko itsas-ertza. Jesus-ekin an jardunak ziren arrantzuan bein baño geiagotan. Jesus piztu ondoren ara joan zen eta aiekin topo egin.

Jesus edozein garai eta edozein unetan agertu daiteke. Eta ori guk badakigu. Lanean ari geranean edota otoitzean ari geranean; billera batean edo festa dugunean; nekaturik aurkitzen geranean edota atsedenean.

Apostolu-arrantzeale aiek bazuten norbaiten bearra. Gau osoan lanean jardun eta ezer arrapatu gabe etxera joatea ez da gustagarria. Buru-makur etxeratzea ez zaio iñori atsegin.

Kristau ekintzan, gizarte konpromisuan, pastoral lanean, eziketa ekiñean, parrokia sailletan... askotan sentitzen dugu esku-utsik etxeratzen geranaren iduripena... Ainbeste lan egin ondoren, fruiturik ez jasotzearen zama eta pisua bizkarrean daramagu asko ta askok. Zergatik ote?

Gaur egun asko fiatzen gera teknika eta aurrerapenaz. Asko fiatzen gera gizakiak egin dezaken guztiaz. Geure «luzimentua» ere billatu oi dugu dexente aldiz, ori ere, egia da. Askotan pazientzia

apur bat falta izaten dugu. Jesus-en agerpena bear dugu egiten dugunak balio duela sinetsi dezagun.

Edota gerta daiteke Jesus gure inguruan eukitzea eta guk ezagutzen ez. Ezagutzen ez baldin badugu federik eta maitasunik ez daukagulako izango da.

Lagunen aolku onak, gaisoa zaintzea, familiaren elkartasuna .... eta antzeko ereduetan Jesus berpiztua «ikus» dezakegu.

Eta pazio experientzia onetan eliza ere ari da ernaltzen, ari da gorputz itxura artzen. Elkarrekin oso talde txikia da, txikia baña fede aundikoa. Senidetakunak lotzen ditu elkarrekin.

Ala ta guztiz ere Jesus-en bearra sentitzen dute. Badute Jaunaren berriak, badute ogiaren, arrainen eta Jesus-en irakaspenen bearrik lenengo taldekide aiek.

Gure elizak ere bear du Jesus berpiztuaren bearrik. Legekerian erori gabe Jesus-en Espiritua bear du gure elizak. Jakin bear dugu Jesus dela gu salbatzen gaituena. Ark egiten digun gonbitta onartu bearko dugu, maitasunez egiten digun gonbitta dalako: «Zatozte eta jan».

Mai ortan dugu lanerako bear dugun indarra. Mai ortan Jesus berpiztua dugu maikide. Zergatik uko egin? Mai orrek, eukaristiak, alegia, elkartzen gaitu senide gisa kristau guztiok.

Jesus guztiak agertzen zaie eta Aren salbazioa guztientzat da.

Artzalluz'tar Joxemari